

Lasa (1940-1960): igandetan hiru meza

E.: girixtinoak ziren zure aita-amak, nola...?

M.: eta ba, ba, ba, jakizazu ez dutela ek igandetako mezaik uts in e! ene aita re joaiten zen eta goizeko lau ontako, bazen iiztarien meza, goizeko bost ontan, edo eztaite bate nola ematen ziin jaun ertorak, beiti eta ono oinez e, ez zen eta ordian otoik ez bizikletik, bizikletak bearba eztaikit, bazien, bana nun ginin bidia, lohian ba, loia zen ordian, ta mezaa joaiten ginelaik, eta herriko plazako etxe... Jatsandeinia bazen, beste at e ba, Xapatandeia, gu joaiten ginelaik mezaat eta re, haano eremaiten gintin eta, kloskak erten zien, ez zen oaiko botaik-eta, ta han kentzen gintin eta gure lohian ibiliak, eta zaku batian eremanak gintin eta zapatak, han jaunzteko eta elizaa joaiteko, a ola zen eta leen, bidia dena loia baitzen euria zelaik, eta iiz... Eta aita-amak oi oi ta leen bazen herritan, bazen goiz meza erraiten zena, tenore... Urritan baziren hiru meza Lasako elizan, beste erritan e ba bearba, ez dakit, na bazen iiztarien meza, bazen goiz meza zazpi onetan, eta bazen hamarrak et erditan, meza nausia erten zuten, ez dakit zendako zen meza nausia, beti meza... Oono re jarraikitzen da izan... Meza nausia, bena oai meza nausi guti baita, herritan ez da... Ez da mezaik geio, guti bezik.

E.: edo bakar bat.

M.: ba, bakar bat, bana oai... Oaiko eta... nola erran beaut, konfinamendu edo ez dakit nola erran beautan, horrekilan oal aspaldian ez dugu mezaik e, e! Ez da gu bezala... Gure erri ttipia bezalako ootan, bon, meza, nai balin badugu joan bada Donibane Garazin eta Donazaarren e ba, bana geo ez da besteik e, gure erritan ez da mezaik.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna
Alexander Artzelus Muxika
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU
Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala